



## SENITARTEKOAK ZAINTEKO ESZEDENTZIEI BURUZKO INFORMAZIOA

Senideak zaintzeko eszedentziak EIZUren bidez eskatu behar dira, bai karrerako funtzionarioak, bai bitarteko langileak.

Eszedentzia horiek [Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen](#) 144. artikuluan daude araututa.

Nolanahi ere, errespetatu egin behar da [Jarraibidea, 2023ko martxoaren 23koa, hezkuntza saileko langileak kudeatzeko zuzendariarena, lizentzia, baimen, eszedentzia eta lanaldi-murrizketa jakin batzuk eskatzeko gutxieneko eta gehienezko epeei buruzkoa.](#)

### IZAPIDETZEA

Eszedentzia hasteko eskaera beti egin ahal izango da indarrean dagoen izendapen batekin, edo, salbuespen gisa, ikasturte hasierako esleipen-prozesuan lanpostu baten esleipenduna izan ondoren.

Eskaera baino 10 egun baliodun lehenago aurkeztu beharko da, edo, gehienez ere, eskaera aurkeztu baino hilabete lehenago, lehen aipatutako 2023ko martxoaren 23ko Jarraibidearekin bat etorritz.

Era berean, bitarteko edo ordezkoko langileei eszedentzia eman ahal izango zaie, baldin eta aldeztu aurretik eszedentzia eskatzen duen lanpostuaren jabetza egin badute eta eszedentziaren aurreko egoera jarduneko zerbitzuarena bada (egoera hori barne hartuta lizentziak eta baimenak).

Senitartekoak zaintzeko borondatezko eszedentzia hasteko eskaera EIZUren atariaren bidez egin behar da nahitaez, formularioa behar bezala betez, betiere eskaeraren gutxieneko eta gehieneko epeak kontuan hartuta eta kasu bakoitzean beharrezkoa den egiaztagiriak aurkeztuta.

Datorren ikasturterako, irailaren 15a baino lehen eskatzen diren eszedentziei dagokienez, ahalik eta azkarren kudeatuko dira, 2023ko martxoaren 23ko Instrukzioan ezarritakoaren arabera.

Egoera hauek bereizi behar dira:

- Bitarteko langileak: egungo izendapena beranduenez 2024ko abuztuaren 31n amaitzen denez, hurrengo ikasturterako eszedentzia eskatu ahal izateko, 2024-2025 ikasturtearen hasierako esleipenetan lanpostu bat lortu beharko dute eta esleipenei buruzko informazioa EIZUari irauli arte itxaron beharko dute (2024ko abuztuaren 12a aurreikusi da)
- Behin-behineko destinoa duten karrerako funtzionarioak, behin betiko destinora joango ez direnak, edo 2024-2025 ikasturterako destino berria duten karrerako



funtzionarioak: hurrengo ikasturterako eszedentzia eskatu ahal izateko, 2024-2025 ikasturtearen hasierako Lekualdatze Lehiaketaren eta esleipenen emaitzak EIZUri irauli arte itxaron behar dute (2024ko abuztuaren 12a aurreikusten da).

- Behin betiko destinoa duten karrerako funtzionarioak, 2023-2024 ikasturtean eta 2024-2025 ikasturtean postu bera betetzen dutenak: pertsona horiek EIZUrako eszedentzia eska dezakete, EIZUri informazioa irauli arte itxaron behar izan gabe.

Ikasturtean zehar eskatzen diren eszedentziei dagokienez, langile guztiek eskaera egin eta 10 egun balioduneko gutxieneko epea errespetatu behar dute beti. Horrela, lanpostu baten esleipendun izan den ordezkoko pertsona batek 10 egun baliodun eman beharko ditu zerbitzu aktiboan, izendapena hasten denetik, eskaera ezin baitu egin lanpostuaz jabetu arte.

Eszedentziak beti amaitzen dira eszedentzia hori ematea eragin zuen izendapenaren bukaerarekin. Eszedentzia eman aurretik izendapena amaitzen bada, eskaera bertan behera geratuko da, eta beste lanpostu bat esleitzen bazaio, beste eszedentzia-eskaera bat egin beharko du, lanpostuaz jabetu baino 10 egun baliodun lehenago.

Ordezko langileen kasuan, "Nire Karpeta"ko datuak eguneratuta izan beharko dituzte eta bertako jakinarazpenen berri izan beharko dute. Nire Karpetan eskuragarri ipinitako izendapen amaieraren jakinarazpenari kasu egitea gomendatzen da, eszedentzia amaitu dela jakiteko eta nahi izanez gero lanpostu berri baten esleipendun izateko ordezkagunearen bitartez.

Kontuan izan behar da karrerako funtzionario edo bitarteko funtzionario (bitarteko lanpostu hutsa edo ordezkoko bitarteko funtzionarioa) denari bakarrik eman dakiokela aurretiaz familia-zaintzagaritako eszedentzia, betiere lanpostuaz jabetu badira, aldi baterako etenean ez bezala. Izan ere, aldi baterako etenduraren kasuan, lanpostu baten esleipendun izate hutsarekin har daiteke eszedentzia, aldeztu aurretik lanpostuaz lanpostuaren jabetza egin gabe.

Adibideak:

- Ander, hautagaien zerrendetako irakaslea, ordezkagunean lanpostu bat esleitu zitzaien irailaren 20an, eta aldi baterako etetea eskatu zuen. Kasu honetan, ez da beharrezkoa Ander izendapena hasten den egunean (irailaren 23an) lanpostura joatea. Izendapena abenduaren 20an amaitzen bada eta Anderrek kontrakoa adierazten ez badu, ikasturte horretan aldi baterako etetean jarraituko luke, eta dagokion meritajea lortuko luke.

Anderrek hurrengo ikasturteko ikasturte-hasierako esleipenetan parte hartzen badu, eta lanpostu baten esleipendun suertatzen bada, aldi baterako etete ekoerari jarraitzeko aukera du, lanpostuaz jabetu beharrik izan gabe (betiere adingabearen adinaren baldintza betetzen badu).



- Ane hautagai-zerrendetako irakaslea da, ordezkagunean irailaren 20an lanpostu bat esleitu zitzaion eta familia zaintzeko eszedentzia eskatu nahi du. Kasu honetan, izendapenaren hasieran (irailaren 23an) beharrezkoa da Ane lanpostura joatea. Irailaren 23an eszedentzia eskatu ahal izango du urriaren 8ko hasiera-datarekin (10 egun baliodun lehenago), eta esleitutako lanpostuan zerbitzuak eman beharko ditu eszedentziaren hasiera data heldu arte, dagokion ebazpena jaso ondoren.

Izendapena abenduaren 20an amaitzen bada, emandako eszedentzia amaituko da. Ane hautagai-zerrendetako "erabilgarri" egoerara igaroko litzateke.

Urtarrilaren 8an, urtarrilaren 9ko hasiera-datarekin, beste ordezkapen bat esleitzen bazaio urtarrilaren 9an joan beharko du ikastetxera, eta urtarrilaren 24rako eszedentzia eskatu ahal izango du. Egun horretara arte esleitutako lanpostuan lan egin beharko du. Urtarrilaren 20an, ordeztan duen titularra lanpostura itzultzen bada, eszedentzia-eskaera bertan behera geratuko da. Laburbilduz, karguaz jabetzen den pertsona bakoitzaren izendapenarekin errepikatu behar da prozesu hori.

Anek hurrengo ikasturteko ikasturte hasierako esleipenetan parte hartzen badu eta lanpostu baten esleipendun bada, ikasturte hasierako esleipenak irauli ondoren, semea edo alaba zaintzeko eszedentzia eskatu ahal izango du (betiere adingabearen adinaren baldintza betez), eta eskaera gutxienez 10 egun balioduneko epearekin egiten badu, lanpostuaz jabetu eta hurrengo egunean eman ahal izango zaio eszedentzia.

## LANERA ITZULTZEA

Beti Tramitagunetik egin behar da lanera itzultzeko ekaera, 2023ko martxoaren 23ko Instrukzioan ezarritako aurrerapen-epeak errespetatuz, eta, nolana ere, egun baliodunean egingo da. Lanera itzultzeko eskaera baimentzeko, beharrezkoa da lan-bizitzaren kontsulta onartzea, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 156.4 artikuluan ezarritakoa egiaztatzeko (bateraezintasunen araubidea).

En Vitoria-Gasteiz, a 04 de julio de 2024  
Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 4an.

**LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARITZA**  
**DIRECCIÓN DE GESTIÓN DE PERSONAL**